

«Ez gaituzte isilduko»

Erasoari berehalako erantzuna eman zion Zarautzek

Egin egunkariaren aurkako erasoaren berri izan orduko, hainbat eta hainbat zarautzarrek erantzun zion asteazkenean adierazpen askatasunaren bahiketa lotsagari honi. Goizean Hernaniko egoitzara hurbiltzeaz gain, asteazken arratsaldean batzara egin zen Musika Plazan, ondoren herria barrena giza-kate isila ibili zelarik gertatua salatuz.

Batzararen ostean, Hitz Egin plataformak deituta egoera berriari aurre egiteko taldea osatu zen Zarautzen. Talde horrek asteazkenean bertan hartu zituen lehen erabakiak. Horien artean garrantzitsuenak, zarautzarrentzat behintzat, gaurtik aurrera kalean dugun *Zarautz Egin* hau sortu eta egoera honek irauten duen bitartean eguneroko kaleratzea izan zen. Beste zenbait mobilizazio ere adostu ziren, ordea, asteazkenean.

Horien artean lehenengoa atzo goizean izan zen herriko hainbat kioskoren aurrean. Prentsa banatzen duten lekuen atarian, Egin itxi dutela eta, beraz, herri honen zati handi bat ahotsik gabe utzi dutela salatu zitzaion egunkariak erosi zituztenei. Halaber, atzo, gertaerak salatuz hainbat kartel eta pankarta jarri ziren herria barrena.

3. Atzo Zarautza iritsi ziren Euskadi informacion guztiak saldu egin ziren. Aipagarria da, hala ere, hainbat dendarik ezin izan zuela egunkari hori banatu, ez zuelako jaso ahal izan. Zarautzko banatzaile bakarrak izan zuen egunkaria bere eskuetan eta bere dendetan bakarrik saldu zuen. Gainera, zenbait laguni dagoeneko agortu zela ere esan zitzaion oraindik aleak gelditzen zitzaizkienean. Udalerxearen aginduz, bertiz, Egin egindako eraso salatzen zuten pankartak kendu zituzten Musika Plazatik atzo eguerdian.

Zarautz Egin, eguneroko kalean

Bolondres talde bat arduratuko da eguneroko aleaz

Asteazkenean erabakitakoari jarraiki, bolondres talde batek eguneroko eskuartean duzun egunkari hau kaleratuko du. *Egin* egunkaria indarrez ixkita, Euskal Herria bezala, Zarautz ere ahotsik gabe utzi nahi izan dute. Ez dute lotru, ordea. Une gogor hauetan aurrera egiteko prest gaude eta lehen herriko kronika bat baldin bagenuen hainbeste orrialderen artean, orain, zarautzarrok, lau orrialde izango ditugu *Zarautz Egin* honetan.

Eguneroko egitasmo hau gauzatu dadin, ordea, ezinbestekoa dugu guztion laguntza. Ezinbestekoa zaigu herriko talde eta erakunde guztiak deia luzatzea lehen *Egin*en herriko kronikarako bidalkzen zuten informazio guztia, lehengo bideetatik bidalkzen jarrai dezaten. Orain, gainera, herriko 391 postakurra ere egunkari honen zerbitzura dugu edonork bere iritzi, guthun, marrazki edota testuak bidal ditzan.

Egin itxi digute. Bitartekoak kendu dizkigute. Baina lanerako indar eta gogo gehiagorekin inoiz baino jende gehiago topatu dugu bidean egunotan. Aurrera egingo dugu. Gaurtik aurrera, badugu informazio iturri berri bat. Zarautzarrok *Zarautz Egin* egingo dugu!

